

[Eusk/Cast] Sobre el anuncio de acercamiento de quienes están presxs en el Estado francés

AMNISTIAREN ALDEKO ETA ERREPRESIOAREN AURKAKO MUGIMENDUA :: 28/02/2018
Estatus DPS, últimos acercamientos y fichero FIJAIT

Frantziako Estatuan preso dauden iragarritako hurbilketari buruz

DPS estatusa, azken hurbilketak eta FIJAIT fitxategiaAz, 2018/02/28 - 12:25 argitaratua

Astearte honetako albistea izan da Zigor Garro eta Julen Mendizabal euskal preso politikoak Mont-de-Marsaneko kartzela frantsesera hurbildu dituztela. Azken hilabeteetan Frantziako Estatuak preso politikoekiko izan lezakeen balizko jarrera aldaketa bati buruz hitz egin dute eragile eta alderdi politiko ezberdinek, eta horren inguruko balorazioa egin nahi du Amnistiaaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimenduak.

Bake Bidea plataformak urtarrilean iragarri zuen frantziar Estatuak euskal preso politikoak Euskal Herrira gerturatzea onartua zuela. Era beran, iazko azaroan zazpi preso politikori DPS (Détenus Particulièrement Signalés) estatusa kendu zietela iragarri zuen, preso hauen biziak kartzelan baldintzatzen duen neurria alegia.

Iragarpen hauek guztiak 'bakea eta normalizazioaren' bidean emandako urrats garrantzitsu gisa saldu zituzten Euskal Herriko eragile politiko gehienek. Bestalde, 'biktimenak' deritzan erakunde ultra eskuindarrek, Frantziako Justizia Ministerioarekin bildu eta gero, lasaitu handia hartu zutela egin zuten publiko, izan ere ziurtatu baitzieten egin beharreko mugimendu guztiak 'legearen barnean' egingo zirela eta ez zirela negoziazio baten ondoriozkoak izango. Beranduago, Frantziako Justizia Ministerioak argi utzi zuen gerturatzetako horiek hainbat baldintza betetzen zituzten presoekin baino ez zituela onartuko: zigorraren zatirik handiena beteta edukitzea, portaera ona mantentzea, Espainiako Estatuan auzirik irekita ez edukitzea, eta 'odol delituen' akusaziorik ez izatea.

Albiste hauen aurrean, Amnistiaaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimenduak ezinbestekoa ikusten du itxaropen faltsurik ez sortzeko beharrezkoak diren hainbat datu plazaratzea. Ez dira gutxi sakabanaketa politikaren ondorioak preso edota senide moduan pairatu dituzten eta oraindik pairatzen dituzten gure militanteak, eta hortaz, gure desio irmoa da preso politikorik gelditzen den bitartean, behintzat ahalik eta bizi baldintza onenetan egon daitezela, eta horretarako errealtitatea ez desitxuratzea beharrezkoa da.

Lehenik eta behin azaldu behar dugu Frantziak aplikatzen duten DPS estatusa, Espainian FIES estatusarekin gertatzen denaren kontra, ez dietela preso politiko guztiei aplikatzen eta, preso horien epaiketa guztiak bukatu eta gero, ohikoena dela DPS estatusa bertan

behar uztea. Frantziar Estatuaren jarrera hau ez da berria, aspaldikoa baizik, eta hortaz, azaroan DPS estatusa kendutako zazpi preso politikoen kasuak ez dakar berritasunik, interes politikoengatik albisteari emandako oihartzuna ez bada.

Preso politikoen hurbilketari dagokionez, azken urteetako jarduera arrunta izan da arestian aipatutako baldintzak betetzen zituzten presoak Mont-de-Marsanera hurbiltzea. Azken bi urteetan kartzela horretan egon diren hiru euskal presoak eta beranduago hara eramandako laugarren bat libre geratu ostean, Zigor Garro eta Julen Mendizabal dira hurbildu dituzten azken presoak. Garrori bi urte eta erdi falta zaizkio zigorra betetzeko eta Mendizabali hilabetea baino zerbaite gehiago.

Bestalde, inork gutxik hitz egiten du Frantziak hamarnaka euskal preso politikori eta preso politiko ohiri jihadismoaren aitzakiapean ezarritako FIJAIT fitxategiari buruz. Fitxategi honi esker Frantziak kartzelatik atera eta hurrengo 20 urteetan kontrolatu ahal izango ditu fitxategian sartutako militante politikoak, ezarritako kontrolak bete ezean beste bi urtez kartzelatzeko mehatxua ere ezartzen dielarik. Neurri honek preso politikoei kartzelatik irten eta geroko 20 urteko baldintzaeko askatasuna dakarkie.

Ordezkaritza instituzionala egiten duten euskal alderdi ezberdinak (EH Bildu, PNV) etengabe ari dira preso politikoen auzian kea saltzen. Garaipenetik garaipenera dabilzala sinestarazi nahi digute haien ildo politikoa elikatzeko eta presoen espelte barruko jarrerak baldintzatzeko, baita Euskal Herriaren askatasunaren aldeko borroka apaltzeko ere. Estatuek ezartzen dituzten neurri guztiak onartzera bultzatu nahi dituzte errepresaliatuak kartzela barruko erabakitzeko ustezko askatasunari dei eginez. Kartzelan baina, askatasuna da faltan dagoen elementurik garrantzitsuena eta norbanakoak hartutako erabaki bakoitzak gainontzeko guztiei eragiten die. Batzuek onartzen dituzten neurriak guziontzako ezinbesteko baldintza bihurtuko dira, onartzen ez dituztenen kateak are eta astunagoak bihurtuz.

Azaldutakoagatik, Amnistiaaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimenduak politikakeria alde batera uzteko deia egin nahi du. Espetxe sakabanaketa preso politikoen bitartez euskal nazio askapenerako borroka baldintzatzeko helburuaz jarri zuten martxan Frantziako eta Espainiako Estatuek, eta juxtu horretarako jarraitzen du erabiltzen. Guk amnistiaaren aldeko borrokan jarraituko dugu, errepresaliatu politikorik gabeko Euskal Herri askea erdiesteko modu bakarra dela konbentzituta gaudelako.

Euskal Herria, 2018ko otsailaren 28a.

Amnistiaaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimendua.

Sobre el anuncio de acercamiento de quienes están presxs en el Estado francés

Estatus DPS, últimos acercamientos y fichero FIJAIT

Este martes ha sido noticia el acercamiento de los presos políticos vascos Zigor Garro y Julen Mendizabal a la cárcel francesa de Mont-de-Marsan. Durante los últimos meses, los

distintos agentes y partidos políticos han hablado sobre el posible cambio de actitud del Estado francés respecto a los presxs politicxs, y sobre esa cuestión quiere hacer su valoración el Movimiento Pro Amnistía y Contra la Represión.

La plataforma Bake Bidea anunció en enero que el Estado francés había aceptado acercar a Euskal Herria a lxs presxs políticxs vascxs. Igualmente, en noviembre del año pasado anunció que habían retirado el estatus de DPS (Détenus Particulièrement Signalés) a siete presos políticos, estatus que condiciona la vida en prisión de lxs presxs a lxs que se les aplica.

La mayoría de los agentes políticos de Euskal Herria vendieron estos anuncios como importantes pasos en el camino de la 'paz y la normalización'. Por otro lado, las asociaciones ultraderechistas llamadas de 'víctimas' hicieron público, tras reunirse con el Ministerio de Justicia francés, que se habían quedado tranquilas porque les habían asegurado que todos estos movimientos se harían 'dentro de la ley' y que no serían consecuencia de ninguna negociación. Más tarde, el Ministerio de Justicia francés dejó claro que los acercamientos solo se llevarían a cabo con aquellxs presxs que cumplieran determinadas condiciones: tener cumplida la mayor parte de la condena, mantener un buen comportamiento, no tener causas pendientes en el Estado español, y no tener acusaciones de 'delitos de sangre'.

Ante estas noticias, el Movimiento Pro Amnistía y Contra la Represión ve imprescindible sacar a la luz algunos datos que son necesarios para no crear falsas expectativas. No son pocxs lxs militantes de nuestro movimiento que han sufrido o siguen sufriendo las consecuencias de la política de dispersión, como presxs o como familiares, y es nuestro firme deseo que mientras queden presxs políticxs estén en las mejores condiciones posibles, y para ello es necesario no deformar la realidad.

En primer lugar tenemos que explicar que el estatus de DPS que aplican en Francia, al contrario que el FIES que aplican en España, no se lo aplican a todxs lxs presxs políticxs y que a lxs que se lo aplican, lo más habitual es que les retiren dicho estatus cuando ya han terminado todos los juicios. Esta actitud del Estado francés no es nueva y, por lo tanto, el caso de los siete presos políticos a los que se les quitó el estatus de DPS en noviembre no trae nada nuevo, salvo el bombo que por interés político se le ha dado a la noticia.

En lo que respecta a acercamiento de presxs políticxs, ha sido una práctica habitual de los últimos años acercar a Mont-de-Marsan a aquellxs que cumplieran las condiciones mencionadas anteriormente. Tras quedar en libertad los tres presos vascos que durante los dos últimos años habían permanecido en esa cárcel y posteriormente un cuarto que también quedó en libertad, Zigor Garro y Julen Mendizabal son los últimos presos a los que han acercado.

Por otro lado, casi nadie está hablando sobre el fichero FIJAIT que con la excusa del yihadismo el Estado francés ha aplicado a decenas de presxs y ex presxs políticxs. Gracias a este fichero Francia podrá controlar a lxs militantes políticos incluidos en él durante los 20 años siguientes a su excarcelación, con amenaza de condenar a dos años de prisión a quienes no se sometan al control. Esta medida supone a lxs presxs políticxs una libertad condicional de 20 años a partir de su salida de prisión.

Los distintos partidos vascos con representación institucional (EH Bildu, PNV) están vendiendo humo de manera constante en el tema de lxs presxs políticxs. Nos quieren hacer creer que van de victoria en victoria con el fin de alimentar sus líneas políticas y condicionar las actitudes que lxs presxs mantienen dentro de las cárceles, así como para ayudar a rebajar la lucha por la libertad de Euskal Herria. Quieren impulsar que lxs represaliadxs acepten todas las medidas que los Estados imponen, haciendo un llamamiento a una supuesta libertad de decisión dentro de la cárcel. En la cárcel, sin embargo, es la libertad el elemento más importante de todos los que faltan y cada decisión adoptada por cada individuo afecta a todos los demás. Las medidas aceptadas por algunxs se convertirán en condición imprescindible para el resto, convirtiendo en más pesadas aún las cadenas de quienes no las acepten.

Por lo que hemos explicado, el Movimiento Pro Amnistía quiere hacer un llamamiento a dejar de lado el politiqueo. Los Estados francés y español pusieron en marcha la dispersión penitenciaria con el objetivo de condicionar la lucha de liberación nacional vasca, y precisamente para eso es para lo que la sigue utilizando. Nosotrxs seguiremos luchando por la amnistía, porque estamos convencidxs de que esa es la única manera de lograr una Euskal Herria libre y sin represaliadxs políticxs.

En Euskal Herria, a 28 de febrero de 2018.

Movimiento Pro Amnistía y Contra la Represión.

<https://eh.lahaine.org/eusk-cast-sobre-el-anuncio>